



1997KO
AISENDUA



gasteizko

euskaldunon

aldizkaria

Pou anaiak: gazteen indarra



perretxikoak saltsan

3

1997ko abendua

2

IRITIZ BLAI

- Prest...? Bat, bi eta... hiru
- Foru Araua

3

ZURRUMURRUAK ETA HITZ ETA PITZ

5

KALEA MINTZO: Kiloak gora eta behera

6

ELKARTASUNEAN LAGUN

Gonzalo Lopez

8

MIKOLOGIA

Elkarriketa Luis Mari Iriartekin

12

ELKARTASUNA

Kafe goxoa Hegoaldearen alde.

14

GIZARTEA

Zer da Infopoint?

Gabonetako parkeak

19

MUSIKA: The Bröntes

22

HAURRAK (mostrongotxoak)

lehendakari bila

24

ELKARRIZKETA

Inaxio Lopez de Arana. Itzultzailea

26

KOMIKIA

Meri krismas

araba-bizkaiko bertsolari txapelketa

Oraingoan gure bertsolariak oporrak hartu dituzte. Araba-Bizkaiko aurtengo txapelketako bertso batzuk ekarri ditugu, beraz. Asier eta Unai bikote bat dira. Ilunabarrean paseotxo bat egiten dabilta Bermeoko Tailaia parketik



ASIER OTAMENDI

Bikotetxo hau alkar hartuta
hor dabil era garbian
lehengo pinu batzuei begira
trago bat gero iturrian
mutil honetik nik suerte ona
izango dut bai agian
patila horiekin laztan txiki bat
egidazu aurpegian

UNAI ITURRIAGA

Zuk badakizu laztan kontuak
pasatu direla modaz
halan da guzti eskutik hartu
eta gu dotore goaz
hara begira gure izaro
negu beltzeko denboraz
han e(g)ingo dogu gure
etxetxo
planoak e(g)inda deukodaz

ASIER OTAMENDI

Planoak egin omen ditu ta
haua nere trantzea
ez duzu oso ondo egin mutil
gauza hori aitortzea
bakarrik nai nu(e)n une goxo
bat
gaur zurekin pasatzea
aizu ez duzu pentsatuko ba
ni zurekin ezkontzea

UNAI ITURRIAGA

Ez dozu gura nigaz hastea
koño ez neban espero hara
oraintxe bertan eman deustazu
izugarrizko pasada
anilo eta guzti haldu naz
Bermioko talaiara
holan zeundela jakin ezker
Lameran gelditzen gara

ASIER OTAMENDI

Aniloak bai belarri hortan
darabilzkizu luzitzen
baina zu horren guapo zarenik
gaurkoan ez det sentitzen
zuk Bellas Artes ikasi duzu
horretaz zara harrotzen
baina zu egin zintunak ez
zu(e)n
horretaz asko ulertzen

UNAI ITURRIAGA

Ez neban uste hasiko zenik
gaur neskato hain gogor
zeu be ez zara horren ederra
esan behar deutzat jator
eperdi erdi bat eta aurrean
baloien lako bi kokkor
Bermion ez dau genero onik
barkoetatik ez badator

ZUZENDARIA: JOSU KINTAS

ERREDAKZIOBURUA:

ASIER PZ. DE KARKAMO.

ERREDAKZIO-BATZORDEA:

LEIRE LOPEZ DE ABERASTURI, ISMAEL DIAZ
DE MENDIBIL, DAVID ALVEZ, EDU LOPEZ DE
LUZURIAGA.

MAKETAZIOA:

ALEX BADILLO

KOMIKIA ETA MARRAZKIAK:

INIGO SARASOLA, AITZIBER IRIONDO

PUBLIZITATEA:

KARLOS FDEZ. DE BETOÑO

ARGAZKILARIAK:


EDORTA SANZ, JOSEBA UNZALU.

KOLABORATZAILEAK:

TXIPI ORMAETKEA, JUAN JOSE
KASTRESANA, INAKI GAUNA, TXABI ARNAL
GIL

INPRIMATEGIA:

GERTU KOOP. E. (ZUBILLAGA, OÑATI)



Arabako Foru Aldundiko Kultura eta
Euskara Sailak diruz lagunduriko aldizkaria



Lege-Gordailua VI-582/92

ISSN: 1133-0988

Pedro Asua, 2 - 3.a
Tfno. eta faxa 22 21 53

gasteizko euskaldunon aldizkaria

Fundación Sancho el Sabio Fundazioa



Eusko Jaurilaritzako Kultura Sailak
diruz lagundutako aldizkaria

bera akotatua

Kiloak gorabehera

Gabonak gertu ditugu. Garai hauetan ohikoa baina dextente gehiago jan eta edateko joera dugu guztiok. Gero gerokoa etorriko da: egun hauetan metatutako soberazko kilo horiek guztiak gainetik kendu beharra, dieta, orduak eta orduak izerditan gimnasioan. Egungo gizarteak lirain nahi omen gaitu!

- 1.- DIETARIK EGIN AL DUZU INOIZ?
- 2.- PURI-PURIAN OMEN DAGO GORPUTZARI KULTOA EGITEA. ZER DERITZOZU?



jose a. pz berasategi
IRAKASLEA



joseba ruiz
TEKNIKOA

1.- Uste dut ez dagoela dieta onik. Nik ez dut inoiz dietarik egin baina norbaitek erabaki hori hartuz gero, errespetatu egingo dut.

2.- Lehen esan dudana bezala ez diot inportantzia handirik ematen.

1.- Nik inoiz ez. Dena den, nahi duenak egin dezala.

2.- Neuri tontakeria hutsa iruditzen zait, baina beno... norberak jakingo du zer egiten duen bere gorputzarekin



eduardo agirre
TEKNIKOA

1.- Ez, gustura nago neure gorputzarekin

2.- Txorakeria galanta iruditzen zait. Zertarako eman hainbeste ordu gimnasioan gorputza hasiera baino ez da izaten.



mertzxe gomez
ILEA PAINTZAILEA

1.- Inoiz ez dut egin baina medikuaren kontrolpean eginez gero ez zait gaizki iruditzen

2.- Telebistan, zinematan, oso eredu zehatzak saltzen dizkigute eta hori arriskutsua izan daiteke.



marta vazquez
LANGA BETUA

1.- Bat edo beste. Komeni izan zaidanean.

2.- Ondo, baina pasatu gabe. Litekeena da telebistari kasu gehiegi eginez gero osasuna kaltetzera heltzea ere.



mari castaño
ADMINISTRATIBOA

1.- Ez, inoiz ez. Gainera oso gogorra iruditzen zait.

2.- Ez nago ados gaur egun dagoen jarrera horrekin. Ikasi egin behar dugu gure gorputza den bezalakoa

Sei hilabeterako begien

bistatik kenduko gaituzu

bi lentila - kaxa eta disoluzio bakarreko beste bi pote **15.000** pta.n eta gainera erloju bat opari



MENDIA OPTIKA
DESDE 1856 AZ GERO
MULTIOPTICAS

Andre Maria Plaza • Olagibel, 33 (anbulategi aurrean)
VITORIA-GASTEIZ

ZERBITZU OPTIKOETAN
1a

LARUNBAT ARRATSALDEZ
ZABALIK: 5,00 - 8,30

BAUSCH & LOMB

INFORMA ZAITEZ 900 34 35 36 TELEFONORA DEITUTA. IZAKINAK GUKATU ARTE.


Gonzalo Lopez

LEGAZPIAR

BAT

GASTEIZTARTUA

 Gonzalo Lopez 23 urte ditu, jaiotzez Legazpiarra baina orain Gasteiztar sentitzen da. Bost urte pasa dira Gonzalok bere herriak utzi zenue-netik hiriburura etortze-ko. Marketing ikaske-tak egitera etorri zen eta jende askok bezala berton geratzea erabaki zuen.



naiz honela. Legazpin baditut lagunak baina oso herri txikia da: zinemarik ez, kalera irten eta girorik ez... Hemen gauza gehiago egin daiteke.

Lanpostu bilatzea erraza da?

Mugitu egin behar baina

lan egiteko gogoia izanez gero lana egon badago. Langabezian nago oraindik, baina...

Zer da Gasteizen gehien eta gutxien gustatzen zai-zuna?

Gehien gustatzen zait kale-an dagoen giroa eta mart-xa; gutxien hotza. Neguak

Gasteizen oso gogorrak dira.

Gabonetan Gasteizen geratzeko asmorik?

Ez, Legazpira joango naiz, gurasoak ikustera eta gabonak familiagiroan iga-rotzera. Betikoa! Badaki-zu! Opariak eta abarreko-ak ... Egia esan, ez zait

Zergatik Gasteizen bizi?

Lagunak egin ditut hemen eta inportantea da guraso-en etxetik kanpo bizitzea, askatasun handiagoz bizi

☆
-Z
TABERNA
R
A
JATETXEA

BITORIANO
ZUIA • ARABA
TEL. 43 00 73



ARANBIZKARRA

**ZURE
AUTOESKOLA!**

Valladolid kalea, 16
01002

28 28 39
Gasteiz



HOBETU EZAZU ZURE BIZITZA KALITATEA

HOBEBE

ALTZARIAK ETA ATSEDENA

• koltxoak • somierrak •
kanapeak • ohe artikulatuak •
latex • futton • ipar edredoiak •
neurritara egindako armairuak •

Pio XII.a kalea, 7 behea
Tfnoa. 27 23 44

01004 VITORIA-GASTEIZ

Xabier

taberna

musika ona
eta giro
ezinhobe

Kutxileria 23

gehiagi gustatzen,
baina,...

Nola moldatu zara Gasteizko jendearekin?

Oso ondo. Dena-den, gipuzkoarrek arraroak garela esan ohi dute, baina beno... ni ondo moldatu naiz.

Herriaren falta somatzen al duzu?

Bai, baina hemen gusturara gogo.

Gasteizen euskaraz bizitzerik bai?

Kalean oso gutxi, ez da asko hitz egiten, baina pisuan beste bi gipuzkoar dago eta bertan euskaraz egiten dugu.

GEU Gasteiz aldizkaria ezagutzen al duzu?

Bai eta gustukoa dut. Gasteiztarron iritzia,...

Gasteizen euskara dakiteneke euskaraz egiten al dute?

Ez, Gasteiztarron arteko harremanak erdaraz egiten dira gehien bat, baina pixkanaka pixkanaka gero eta euskara gehiago entzuten da kalean.

Gustuko musikarik?

Rock'n roll eta bakalao. Musika entzutea gustatzen zait, baina jotzea gustatzen zait gehien. Baxua jotzen dut, orain dela urte bat hasi nintzen eta ordubete ematen dut egunero. Bost edo sei abesti jotzen dakit. Abesten ikasten ari naiz, "Primavera en Chernobyl"-eko mutilekin.

Ezagutzen al duzu Gasteizko Gaztetxea?

Bai, baina gutxitan egon naiz, bi edo hiru kontzertura joan naiz eta oso ondo dago, giro ona eta akustika ere ona da.

Zein da arabarron enbaxadorea atzerrian?

Zeledon, Martin Fiz eta Baskonia.

Salatu ditzagun euskarari eginiko erasoak, txalotu dezagun euskararen aldeko lana.

Argazkiak, salaketak, edota beste edozein informazio mota eskertuko dizkizuegu

Geu Gasteiz aldizkaria
Pedro Asua, 2 - 3.a
FAXA: 22 21 53



Oraindik ere Trafiko-seinaleekin bueltaka!

Uste genuen trafiko-seinaleen arazoa konpondua egongo zela dagoeneko. Baina, bai zera! Hirigunean (edo hiri erdian esan beharko genuke eurek egiten duten moduan) aldatu egin dituzte hainbat txartel baina oraindik ere badago zer aldatu. Ikusi, bestela, argazkietako txartelak. Argazki horiek guztiak Jundiz industrialdean egin ditugu.

L.K.

bar * restaurante *
albéniz

Portal del Rey 9

GASTEIZ

BASERRITAR ERAKO ALTZARIAK
berreskuraturiko egurrez eginak
eta **OSAGARRIAK**

*artesan lanak
lorategi eta barrualdeko-proiektuak
egiten ditugu*

Herreria 38, behea tfnoa.: 25 25 03

01013 Gasteiz



OLARIZU MENDI

HERRIKO TABERNA

JOSE URIBUELA KALEAN

GASTEIZKO

IRUBIDE

RAMIRO DE MAEZTU KALEAN

HERRIKO TABERNA

HERRIKO TABERNAK

ALDE ZAHARRA

"SAN FRANCISCO JAVIER" KANTOIAN

PERRETXIKOAK SALTSAN

"Mikologoa naiz, ez mikofagoa"- hitz hauekin azaltzen digu Luis Mari Iriartek perretxikoekiko duen lilura. Luis Marik onddo eta perretxikoekin hain maiteminduta dago, ezen bere alde gastronomikoa alor zientifikoarekin estaltzen baitu. Honekin ez dugu esan nahi perretxikoak jateari uko egiten dionik, baina gutxitan eta gutxika jan behar dira naturaren opari bitxi hauek. Beraz, jateaz ari garela, Manuel Iradier Mendi Elkarteko kide honek perretxikoak bere saltsan ezagutzeko aukera eman digu ondoko elkarrizketan.



**Luis Mari,
noiztik zara
perretxiko-
zalea?**

Manuel Iradier Mendi Elkartek urte askotan landu izan du zaletasun hau. 1994. urtean Gasteizko perretxiko erakusketen hogeita bostgarren urtemuga ospatu genuen. Hala eta guztiz ere, lehen erakusketak baino aurretik

mikologiaren eremu hau asko lantzen zen ere. Nik neuk, orain dela urte pare bat hasi naiz. Lehen, nire lanpostuarekin bestelako denborapasak nituen, dantza bezala. Adinarekin, bestelako ekintzak bilatzen dituzu. Onddoen mundu honetan buru belarriz murgildu nintzen. Eremu guztiz erakargarria da. Perretxiko mota asko daude, milaka datu aurkitzen duzu, eta batzuetan badirudi burua eztanda egingo duela.

Gainera, orain "askatuta" nagoenez, lan egiteari utzi baitiot, "III Mikologia Talde"-an sartu naiz. Talde

hau Manuel Iradier Mendi Elkartetik sortu zen, gero Diputazioak irentsi badu ere. Natur Zientzien Museoa du egoitza, Otxanda Andrearen Dorrean. Otxanda Dorrean eta Manuel Iradier elkartetan nago, bietan.

Zein da "III Mikologia talde" izenaren arrazoia?

Mikologian, talde lanak egon badaude ere, lan bat egiten denean oso gauza pertsonala da, eta konplexua. Hau dela eta, IIIren arrazoia zera da: lan mikologiko bat pertsona batek hasiera ematen dio, pertsona horrek jarraitzen eta amaitzen du.

Zertan datza "lan mikologiko" bat?

Perretxikoak aztertzea. Beti agertzen da zerbait berri. Hemen Manuel Iradier Mendi Elkartean astelehene-



ZuhaiZti

OPARIAK • INPRENTA LANAK • KARTOIZKO ALTZAIKUGINTZA
Kutxillera, 6 behe • 01001 GASTEIZ • Tnoa. 28 60 15

PAPERDENDA

den-dena
bizziklatua



Ardatz

itzulpen eta
euskara zerbitzuak

Arana, 5 - 1 • Tfnoa: 945-26 44 32 • 01002 - GASTEIZ

EDAN • JANTEGIA



ADRIANO VI, 15 • TFNOA: 24 68 53 - 22 33 10 • GASTEIZ

*Karta betiko eta oraingo
platerekin*

*Eguneroko Menua
Betiko kazuelatxoak*

TXUSTA
TABERNA

ESPEZIALITATEA: **BAT ERE EZ**
Mateo Moraza kalea
GASTEIZ



tan zortzitik aurrera kontsul-ta orduak ditugu. Jendeak mendietan jaso duena ekarri eta jan daitekeen edo ez argitzen diegu. Gauza bera Otxanda Andrearen Dorrean egiten dugu, astearte eta ostegunetan. Orain dela gutxi Xabier Olano mikolo-goak ezuste handia hartu zuen: *Russula* perretxiko bat kontsulta orduetan aurkitu zuen, oso espezie arraroa, desagertutzat jotzen zena. Perretxikoak aztertzea eta ezagutzea oso zaila da. Adituek ere orduak eta asteak ematen dituzte perretxiko batzuk aztertzerakoan. Azkenean, perretxikoen esporak

mikroskopioan miatzen dira. Jasotako perretxikoei froga makroskopiko, organoleptiko, makrokimiko eta mikroskopoak egiten zaizkie emaitz fidagarriak lortu ahal izateko.

Zer da zuretzat perretxiko bat?

Nik badakit zer den, halere zaila da azaltzea. Hasteko, onddo eta perretxikoen ezberdinketa egin behar dugu. Milaka onddo mota dago, edonon daude, adibidez fruta bat usteltzen denean, hor sortzen den lizundura onddoak dira. Era berean

eskabia gaixotasuna onddoak dira, penizilina eta beste-lako sendagaiak onddoetatik sortzen dira. Baita ere garagardo, ogia, esnea,... eta bestelako jakietan onddoak erabiltzen dira hartzidura eragiteko. Onddo patologikoak daude ere, gaixotasunak sortzen dituztenak dira, eta onddo hoiek ez dira perretxikuak. Goi mailako onddo batzuk, esporen bidez ugaltzen direnak, perretxikuak dira.

Hauk esporak sortzen dituzte, zeinak bere garaian lurre-ra jaisten dira. Lurrean, tenperatura eta hezetasun egoe-ra aproposak gertatzen baldin badira hazten dira. Hari batzuk sortzen dira, lehen mailako mizelioak. Kontrako bi mizelio elkartzen direnean bigarren mailako mizelioak sortzen dira. Moeta batzuetan lau mizelio ezberdinak elkartu behar dira prozesua aurrera jo ditzan. Bigarren mailako mizelio honetatik perretxikoa hazten da. Galderara bueltatzeko, onddo eta perretxikoa ezberdintzeko, esan daiteke onddoa dela sagarrondoa, eta perretxikua sagarra, bere fruitua. Bestela esanda, ondoaren fruitua perretxikua

da. Perretxiku guztiak onddoak diren bitartean, onddo guztiak ez dira perretxikuak.

Zer gomendatzen diezu mendietara joaten direnei altxor hauen bila?

Lehenengo gomendioa hone-lako hau da, jendeak ez ditu perretxiko asko jaso behar. Askok eta askok perretxiko makina bat hartzen dute, gero zakarrontzira botatzen direnak. Honek min handia egiten die perretxikoei.

Era berean mendira ez dira plastikozko poltsak eraman behar. Plastikoen barruan eremu heze bat sortzen da, non ezin da arnastu, ez du oxigenorik, eta etxera ailegatzerakoan perretxikoak zuzenki zakarrontzira botatzen dira, deseustutak eta usteldutak baitaude. Hobe zumezko saski bat edo kartoizko kaxak. Dena den, ksaskia da hoberena, menditik ibiltzerakoan saskiaren zuloetatik esporak jausi eta sakabanatzen baitira. Saskiarekin esan daiteke perretxikoak erein egiten ditugula.

Bi saskiak eramatea komenigarria da, batean perretxiko ezezagunak sartuko ditugu-



Arte Ederrei

buruzko Sailik
zabalena ezagu ezazu

behar duzun guztia aurkituko duzu

pastelak	pintzelak	lientzoak
oleoak	ikatzkiloak	olioak
akwarela	kaballeteak	etabar

500 METRO KARRATU
PAPERGINTZA, INFORMATIKA
ETA OFIMATIKARI ESKEINIAK

San Anton Plaza 7-8 / Telf.: 26 90 33 - Faxa: 26 22 12
Billegia: Uritiasolo 2.2. Pabilioia 23 47 00 Fax: 23 49 14

%10a
gutxiago



Rriaga
euskalgintza, s.l.

ALISAS

TABERNA



KUTXI 591

ONGI ETORRI

xurrut



KUTXI 103

GASTEIZ



GUREA

GUREA

jatetxea

Konstituzio Enparantza, 10

Telefonoa: 24 59 33

larik. Era honetan etxean mikroskopioz esporak aztertzeraoan ez dira moeta ezberdinetako esporak nahastuko, sailkapena erraztuz.

Perretxikolari ekipu hau osatzeko hiru elementuk behar dira: labana gogorra, makila eta bota batzuk. Labanarekin, besteak beste, zuran sustraitutako perretxikoak eskuratuko ditugu. Perretxikoa oso osorik jaso behar da, bere atal guztiekin, hauek funtzezko erizpideak baitira sailkapen egokia egiteko. Botak eta makila sami artean arrisku gabe ibiltzeko dira.

Nola jakin dezakegu perretxiku bat jangarria edo pozointsua den?

Ez dago arau finkorik. Perretxikoak ezagutzea da arau bakarra. Adibidez esan ohi da zilarrezko

txanponak edo goilaratsoak perretxikoekin egosterakoan, zilarra belzten bada pozointsuak direla. Arau hau ez da fidagarria. Amanita phalloides, arriskutsuenetariko bat, zilarrarekin egosterakoan azken hau ez da belzten. Eta kontrakoa, zilarra belzten duten zenbaitzuk ez dira pozointsuak.

Era beren, perretxiku batzuk egosi gabe pozointsuak dira, eta egosiz gero, guztiz jangarriak, *Amanita vinosa* bezala. *Morchella* moetakoak egosi ezezik, lehortu behar direla esaten da.

Perretxikuak kultur guztietan preziatuak dira edo bere garrantzi gizarteaz gizarte aldatzen da?

Bai, ez da berdin baloratzen herrialde guztietan. Herrialde batzuk zaletuagoak dira, bere historian zehar behar izan baitituzte. Errusiako estepan, esate baterako, inbasio handiak zeudelarik eta, nekazariak basoetan izkutatzen ziren, epe luzetarako. Basoko beste jakiez gain, perretxikoekin elikatzen ziren, jakinduri hau belaunik belauan mantendu da, beste herrialde batzuk baino jakitunagoak bilakatuz.

Arabian zaletu asko al dago?

Bai, maila garrantzitsua daukagu.

"hobe saskia erabiltzea eta ez plastikozko boltsa"

geu gasteiz

Hala eta guztiz ere, Euskadi mailan Bizkaia da garrantzitsuen.

Noizbaitean toxikatu al zara perretxikuekin?

Ez, behin batean frogatzen da egin nuen Urbeltz Gorritzailearekin (*Coprinus atramentarius*), alkohol kontrako perretxiku bezala ezagutzen dena. Entzunda neukan perretxiko mota hau, jangarria dena, alkoholarekin janean gero txarra bihurtzen zela. Alkoholarekin jatea erabaki nuen, lagunak eta senideak kontrakoa gomendatzen bazidaten ere. Perretxikoa jaso eta ardoarekin jan nuen. Ohean infernu bat jasan nuen, takikardia, gorri-gorri jarri nintzen...zera da, nire gorputzarekin demostratu nuen perretxiko hau alkoholarekin arriskutsua dela. Perretxiko honekin sendagai bat prestatzen da, alkoholikoak erabiltzen dutena.

Perretxiko aluzinogenoak esistitzen dira ere...

Micena pura aluzinogenoa da. Jendea mendietara igo, hauetakoak hartu, lehortu eta oso garesti saltzen dituzte. Badago beste perretxiko aluzinogenoa, Kulato Paltsoa (*Amanita muscaria*), epotxen perretxikua. Oso polita da, gorri gorria borobiltxo zurie-

kin. Siberiatarrek bere erlijio zeremonietan sorgorkari bezala erabiltzen dute. Gizonengan liseri-nerbio aldaketak eragiten ditu, mozkorraldi modukoak, lo sakon batean amaitzen direnak. Orain direla zenbait urte, erakusketetan bigilatzen egon behar ginen inork eraman ez zedin.

Manuel Iradier Elkartearen perretxiko liofilizatutak erakusgai dituzue, zertan datza liofilizazio prozesu hau?

Perretxikoen osagai ugariena ura da, % 80a gutxi gorabehera. Tramankulu batetan sartu eta izozten dira. Aldi berean kamaran hutsa egiten da, eta ura solido egoeratik gaseosora iragaten da. Horrela perretxikoen egitura berdin mantenduko da, pisua eta kolore apur bat galtzen duen bitartean..


Zein da perretxikoa kuzinatzeko erarik aproposena?

Hori bakoitzaren arabera da. Ezin da gustuei buruz arautu. Bakoitzak gustukoa duen erara prestatuko ditu. Perretxiku gutxi batzuk eta aldi gutxietan jan behar dira. Hori bai, mikologoa naiz, ez mikofagoa. Perretxikoak jatea gustukoa baldin badut ere, nire ustean alde garrantzitsuenaz azterketa zientifikoa da. Azterketa hau oso konplexua da, egunero zerbait ikasten duzu.

Lorea Zurimendi

Amanita phalloides edo Hiltzaile berdea

Perretxiko arriskutsuena da, benetako hiltzaile berdea. Buru orlegi duen perretxiko hauetako bat jatea nahikoa da hilkorra izateko. Nahiko perretxiko ugaria da.



IRUSTA
poteo eta pintxoak

ESPEZIALITATEA:
Patata tortila • Otartekoak

TABERNA

Mateo Moraza 19
Tfnoa: 23 19 33
GASTEIZ

jo eta ke
TXAPELARRI
TABERNA

KUTXI
kalean

ZURE HARATEGIAK

Jose Luis
GARMENDIA
HARATEGIA-URDAITEGIA



ANDALUZIA13
☎ 28 79 42
GASTEIZ



SANTI
HARATEGIA-URDAITEGIA

PARAGUAY 17
☎ 270790
GASTEIZ

XABIER
AIZPEOLEA
HARATEGIA



Florida Azoka
2 eta 3
☎ 13 24 48
Abastos Azoka
2 eta 3
☎ 26 78 97
GASTEIZ



JOSEBA
HARATEGIA

PARAGUAY MERKATUA
10 ZENBAKIA
El Pilar auzoa • ☎ 25 66 89
GASTEIZ



**gure lurraldeko haragi
samurretan espezialduak**

Floridako altxorra ! 35

adaka
madinabeitia

altzariak • apaindurak
Florida, 35 - Tfnoa: 25 93 59
GASTEIZ

SETEM-ek elkartasun denda ireki du Federiko Baraibar kalean

Hegoaldeko herrialdeek nazioarteko merkataritzan ondorioak jaso behar dituzte. Hainbat elkarte aurrerapausoak ematea erabaki dute egoera horri aurre egin nahian: harreman zuzenak mantendu, produktuak erosi eta era berean kooperazio-lanetan aritu. SETEM elkarteak beste urrats bat eman du munduko aberastasuna berbanatze aldera. Ireki berri duen dendan, erosketa berezia egin dezakezu.

Boliviako Mascao txokolatea, Nikaragua eta Chiapas-eko Altercafé kafea, Kubako Liberación rona, Indiako edo Sri Lankako te biologikoak, Ekuadorreko Qutur marmeladak edo Peruko palmitoa dira, besteak beste, SETEM elkarteak bere dendan eskaintzen dituen produktuetako batzuk.

Baliteke beste dendetan ere produktu hauek aurkitzea. Berton, ordea, erosketa bakoitza elkartasun-ekintza txiki bat da. Produktu hauek guztiak Hegoaldeko ekoizle txikien kooperatibei erosten

zaizkie. Kooperatiba horietan errespetatu egiten da natura, gizon eta emakumeen arteko berdintasunez lan egiten dute eta -garrantzitsuagoa dena- lan soziala da berton egiten dena. Elkartasun dendetako etekinekin, lansari duina bermatzen zaio langile kolektibo horri. Salerosteko era berezi honek Bidezko Merkataritza du izena.

Hauxe eskaintzen du SETEM dendak: kalitatezko manufakturak eta produktuei buruzko nahi duzun informazio guztia (bere jatorria), langile kooperatibek bere komunitatetan bultzatzen dituzten proiektuak, haien egoera... Dena den, ez da hau Gasteizen dagoen elkartasun denda bakarra. Kutxileria kalean martxan dago aspalditik ASKAPENA kolektiboaren elkartasun-denda, bertan jantziak eta artisauek produktuak ere aurkitu daitezke. Badirudi Bidezko Merkataritza zabalduz doala.



Euskal Herrian hastapenetan gaude baina Europako herrialde batzuetan (Holanda, adibidez) 60. hamarkadean sortu ziren lehendabiziko elkartasun dendak. 2.500 inguru daude Europa osoan.

Mintegiak, kurtsoak eta tailerrak

SETEM-en, euren elkartasun-dendan mundu osoko produktuak saltzeaz gain, badute bestelako ekitaldiak prestaturik datorren urteari

begira. Urtarrilean GARAPENERAKO HEZKUNTZA izeneko mintegia antolatu dute. Gainera, bi kurtso egingo dute Hegoaldearen egoerari buruz eta hainbat tailer. Hegoaldeko herrietara bolondresak bidali nahi ditu SETEM-ek. Beraz, badakizue, prest baldin bazaude jo ezazue bertara edo deitu 12 07 46 zenbakira.

Raúl Sáez de Burnaga

Tu Invernadero zure lore sortak

ALDABE 6, BEHEA
tfnoa: 14 43 63 - 01001 GASTEIZ

EL BAR Kutxi

eguneko menua

ELEKTRIZITATEA

GURIA

muntaiak elektrikoak
automatismoak
girotzeko musika
eta segurtasuna

Matxaria, 27. pabilioia • Tfnoa: 943 70 08 95
Faxa: 943 10 85 47 **20600 EIBAR**

axular

LIBURUDENDA

Arka kalea, 11 - 01005 GASTEIZ

GORETTI

ILEAPAINDEGIA

Korteria, 14 MIKEL DEUNAREN PASABIDEA
Tfno: 12 08 88
01001 - GASTEIZ



Euskal Herrian okela ona dugu



EUROPAKO ELKARTEAREN
PARTAIDETZAREKIN FINANTZATUTAKO KANPAINA

EUSKO LABEL



KALITATEA



Kalitateko Euskal Labelarekin identifikaturik eta ziurtaturik iristen zaio okela kontsumatzaileari

KALITATEKO EUSKO LABELA DUEN ABELGORRI OKELA

Kalitateko Eusko Labela duen Abelgorri Okela Baimendutako Harategietan bakarrik saltzen da

• Labeldun okelen salmentan duten espezializazio maila handia dela eta, ikur honekin (►) adierazitako Harategi Baimenduek ARTISAU ERAKO HARATEGI ESPEZIALIZATUEN sailkapena dute Kalitateko Eusko Labela duten produktuetan

GASTEIZ

► CARNICERÍA MÁXIMO SÁNCHEZ
PORTAL DE VILLARREAL, 2

► CARNICERÍA ELVIRA
FERNÁNDEZ DE LECETA, 1

► CARNICERÍA MARQUÍNEZ
ADRIANO VI, 11

-CARN. HNOS. MTEZ. DE ALEGRÍA
CUBA, 3

-CARN. HNOS. MTEZ. DE ALEGRÍA
ENRIQUE EGUREN, 5

-CARNICERÍA SANTI AIZPEOLEA
PARAGUAY, 17

-CARNICERÍA J.L. GARMENDIA
ANDALUCÍA, 13

-CARNICERÍA AIZPEOLEA
MDO. ABASTOS Ptos. 2, 3. Pza. S. BARBARA

-CARNICERÍA AIZPEOLEA
MERCADO DE LA FLORIDA, 19

► CARNICERÍA WENCESLAO ACEBO
MDO. ABASTOS, 26. Pza. S. BARBARA

-CARNICERÍA LASAGABASTER
PORTAL DEL REY, 24

► CARNICERÍA ELVIRA
SIERVAS DE JESÚS, 37

► CARNICERÍA ELVIRA
HORTALEZA, 12

► CARNICERÍA ELVIRA
CORONACIÓN, 9

-CARNICERÍA FERNANDO ARRONIZ
ARIZNAVARRA, 2


-CARNICERÍA J. IZAGIRRE
MDO. GASTEIZ. Pto. 11. ABENDAÑO, 46

-CARNICERÍA MIGUEL ARRONIZ
JOSE MARI OLARTE, 23 -LAKUA, 5

-CARNICERÍA ELVIRA
LOS ISUNZA, 3

-CARNICERÍA GENARO
MERCADO ARANA. Pza. ARANZABELA

-CARNICERÍA-CHARCUTERÍA AMADO
JUNTAS GRALES., 27-29 -LAKUA, 13



KIDE

APAINDURA

Cercas Bajas, 27
Tfnoa: 14 41 95
GASTEIZ

Infopoint Foru Aldundiak Europari buruz sortu duen informazio-gunea

Europa, gero eta hurbilago Infopoint-i esker



Informazio orokorra, datu zehatzak, lege-diak... informazio horiek eskatu dituzte orain arte herritarrek. Martxan daraman hila-bete hauetan unibertsitariak eta ikerlariak izan dira zerbitzu hau gehien erabili dutenak.

Euskara gutxi

Bulegoan hainbat bulegari euskaldun dago. Eskaintzen den informazioa (liburuskak, datuak,...) gazteleraz, ingelesez zein frantzez irakur daitezke baina euskaraz gutxitan.

Oso zerbitzu berria da oraindik ere, bere liburutegia handituko da denbora aurrera egin ahala; informazioa ere hobetuko. Espero dezagun euskararen presentzia ere aurrera egitea hainbestean

Raúl Sáez de Buruaga

EUROPAR Batasuna eta berarekin batera dator-kiguna gainean dugu dagoeneko. Orain arte bertoko erakundeak eta burokrazia korapilat-suak izan badira, egoera areagotuko da Europa-ko instituzio eta legedi berrien eraginez. Euro-moneta, diru-laguntzak, ikerketak, industria eta nekazaritza arloko lege-ak... zalantza eta galde-ra ugari sortuko zaizki-gu. Infopoint zerbitzua, horri guztiari eman nahi dio erantzuna.

Arabako Foru Aldun-diak maiatzean sortu zuen Infopoint zerbit-zua Europar Batasunari buruzko informazioa zabaltzeko. Foru Al-

dundiko egoitza na-gusitik gertu dagoen bulegoan eskari guztiak hartu eta erantzuten dira.

Europar aurki hartuko diren erabakiak eragina izango dute guztiongan. Horregatik, lehen esan dugun bezala, Infopoint zerbitzuak zalantza guztiei eman nahi die erantzuna. Europari Buruzko Informaziora-ko Euskal Sarean dago integraturik eta, beraz, bertan jasotzen diren galderak beste hainbat puntutara berbidera dai-tezke erantzun egoki baten bila. Euskal Sare-an EAEko erakunde publikoak daude lotu-rik.

Gabonetako Haurrentzako Parkea

Abenduaren
26tik
urtarrilaren 5a
arte
Mendizorrotzan

... eta gainera

Ipuin lehiaketa:
"Bidaia espazioan zehar"
Euskara eta gazteleraz

Ordutegia
11,30-13,45
16,00-18,15
18,20-20,35

Marrakzi lehiaketa:
"Martitzar bat irudikatu"
Play-back lehiaketa



LIBURUAK • MUSIKA • MATERIALE DIRIZKILATUA
Manuel Iradier kalea, 9-A Tfn. 11 48 95

**zure euskal
LIBURUDENDA**
Plaza Berria, 14
Virgen Blanca, 1
Tfnoa: 23 16 79 GASTEIZ
2errikoia

UDABERRIA
elkartea
•Euskaltegi Homologatua
-Helduentzat
-Ume eta gaztetxoentzat
•Musika eskola
•Dantza
Uruguay, 9 •Tfnoa: 24 49 65
Abendaño 48 •Tfnoa: 22 34 33
GASTEIZ

**EUSKAL OKELA
LASAGABASTER**
harategia eta urdaitegia
Portal del Rey, 24
Tfnoa: 25 56 90
GASTEIZ

Osteratxo bat izarretan zehar

Teknologiaren aurrerape-
nak eta espazioa haurrei
gerturatzea da aurtengo
Gabonetako Haurrentzako
Parkearen helburua. Tekno-
logiaren aurrerapenek ema-
ten dituzten aukera guztie-
kin jolastuko dute Mendizo-
rrotzara hurbiltzen diren
haurrek: astronomiari
buruzko gunea, planetarioa,
ordenagailuak, interneta,
errealitate birtuala,... Hala
ere, giza harremanak lantze-
ko hain aproposa omen den
garai horretan ez da dena
hotza eta teknologikoa izan-
go. XXI. mendera begirat-
zen duten jokuen esparrua-
ren alboan, betiko joku tra-
dizionalek ere bere lekua
izango dute. Horrela, izar
eta internetekin batera ipuin
kontalariak, scalextric-a,...
aurkituko dituzte gazteiztar
gazteenek. Gabonetako
Haurrentzako Parkean egon-
go diren monitore eta ekital-
di guztiak elebidunak izan-
go dira.

Joku eta ekitaldi guztiak
hiru urte baino gehiago
duten neska-mutikoen goza-
menerako daude pentsatuta.
Eta adin bakoitzak gustu eta
behar zehatzak dituztela
jakinda, denok elkarrekin
jokatzeak guneetaz gain,
adin bakoitzentzako espa-
rruak prestatu dituzte anto-
latzaileek; horrela, bakoit-
zak bere gustuen arabera
jolasak aurkitzeaz gain, hau-
rrak adinaren arabera bana-
tuz, guztiek erosoago gozatu
ahal izango dutela uste dute
antolatzaileek.

2.500 m2

Dena den, prestatu den
esparrua ikusita, 2.500
m2etan guztientzako lekua
egondo dela ematen du. 650
lagun sartuko dira gehienez
turno bakoitzeko. 650
gehienez, neska-mutikak eta
gurasoak kontatuta; antola-
tzaileek belaunaldi ezberdi-
nak elkarrekin jolasten ikusi



nahi baitituzte. Gurasoek
joku-gunera joan, seme-ala-
bak laguntzera joan behar
dutela kontutan hartuta,
izkina batean begira geratu
beharrean parte hartzeko
animatzen direnak ez direla
aspertuko ziurtatzen dute
antolatzaileek.

Guzti hori ordaintzeko 37
milioi pezeta jarri ditu Uda-
lak. Mendizorrotzako kirol-

degira sartu nahi direnak
berriz, 350 pezeta ordaindu
beharko du, iaz baino 50
pezeta gehiago. Hogei lagun
baino gehiago bilduz gero,
erdira jeitsiko da sarreraren
prezioa. Sarrerak aurrez
erosteko Goiuri Jauregira jo
behar da hilaren 22 eta
23an, hamabietatik ordubie-
tara eta seiretatik zortzireta-
ra.

Leire Lpz. de Aberasturi

JANTZI ETA OPARIAK

Kutxilleria, 27
Tfnoa: 26 07 10
GASTEIZ



Argazki - Estudio Erramun

Heraclio Fournier, 23
Tfnoa: 13 71 02
01006

Libertad, 5
Tfnoa: 26 19 91
01004

LA RIOJANA jatetxea on egin!

EGUNEKO MENUA
ETA KARTA

Kutxilleria, 33 tfnoa. 25 02 39



San
Antonio, 39



Zaldiaran Plaza, 10

22 65 64
GASTEIZ

IPARRA taberna Giro ezin hobea!

Florida, 80
Tfnoa. 26 77 81

GASTEIZ

kirolak POU anaiak gazteen indarra

Araban goi-mailako kirolari ugari ditugu. Horietako batzuk ezagunak dira: Martin Fiz, Juanito Oiarzabal, Almudena Cid... Baina, horien atzetik, badatoz beste batzuk. Horiek hain ezagunak ez badira ere, merezi duten lekua ari dira aldarrikatzen kirol munduan. Horra hor, adibidez, Pou anaiak.



JAVIER Mauleon txirrindulariak GEU GASTEIZen esan zuen orain hilabete batzuk: "Indurain munduko txirrindularirik onena izan da, bere garaipenei esker txirrindularitzak izugarri gora egin du gurean, baina, zoritxarrez, mesede ezezik kalte ere egin zigun txirrindularioi". Hitz gogorak ziruditen, erraz azal daitezke, ordea. Atarrabiakoak aurreneko Tourrak irabazi zituenean, txirrindularitza izugarri zabaldu zen, eta merkatal etxeek dirutza inbertitu zuten kirolarien onurako. Ezberdina izan zen gerokoa, ordea. Merkatal etxeek Indurain fitxatzea zuten helburu, eta ez lortu ezean, atzera jo, eta ez zuten sosik inbertitzen. Horren eraginez murriztu egin da txirrindularitza talde kopuruan, eta txirrindulari ugari langabezian ditugu egun.

Gasteizko mendizaleen artean ere antzeko zerbait gertatzen ari da. Juanito Oiarzabalek sekulako lana eginez, munduko 14 zortzi milakoak gainditzear dago eta, jakina, komunikabide, merkatal etxe eta instituzio guztiok -gainerako mendizaleak ahaztuz horri eskaintzen dizkiogu arreta zein laguntza. Ahaztu ohi ditugun horietako batzuk Pou anaiak dira. Eneko eta Iker Pou txikitatik dabilta mendian, "18 urte genituela, Pirinioak punta batetik bestera

ezagutzen genituen", gaineratzen du Enekok. Ordutik, hamaika gailur, horma eta bide egin dituzte anaia gasteitarrek. Halere, anaia nagusia den Enekok argitzen duenez, "askotan elkarrekin ibili arren, bide ezberdinetatik abiatu gara. Iker eskaladan aritu da, gehien bat. Nik aldiz, denetatik pixkat egin dut: Eski, izotza, mendia...".

MUNDUKO TXAPELKETA

Beraiek esaten ausartzen ez diren arren, Iker -Adolfo Madinabeitiarekin batera Arabako eskalaririk onenarikoa da. Txikitatik erakutsi du kirola egiteko trebetasun handia duela eta, orain gutxi, Estatuko eskalada txapelketan laugarrena izan ondoren, mundukoan ere parte hartu izan du Ingalaterran. Txalotzekoa izan da bere lana. Hemen, zoritxarrez, eskalada ez da oso ezaguna. Pou

anaien esanetan, "Euskal Herrian puntako eskalariak ditugun arren, komunikabideek ez dute euren lana isladatzen. Kazetariak eskaladan adituak ez direnez, ez dute gaia kasik jorratzen. Alpeetatik gertu dauden herrialdeetan, berriz, eskalada komunikabide guztietan azaltzen da".

Mendia eta ikasketak batera egin behar dituzte kirolari gasteiztarrek. Enekok eta Ikerrek hiruzpalau ordu ematen dute entrenatzen egunero. Gainera, magisteritza eta administratza ikasten dihardute. Prestakuntza dela eta ez dela, haiek argi dute: "Inurra-tegi anaiek irekitako bidea jarraitu beharra dago. Mendian aritzeko, sasoi onenean egon behar duzu, bestela, akabo".

Etorkizunari begira, dirua da oztoporik handiena.

geu gasteiz

"18 urte genivela,
Pirinioak punta
batetik bestera
ezagutzen genituen"

geu gasteiz

Eurek, ordea, amaika amets eta proiektu dituzte buruan. Enekok Estatu Batuetako Yosemite parke nazionalera joatea du helburu. Hala ere, ez du ezer aurreratu nahi: "Diru laguntzak lortzea, 8.000 metrotako gailurra bat zapaltzea baino askoz zailagoa da. Egun, edonor joan daiteke Himalayara, eta hara goimaila-

ko mendizaleak bakarrik abiatu behar ziren. Federazioak banatu behar zituen instituzioen diru laguntzak, ez orain bezala". Ikus dezakezuenetz, gazteak indartsuak datoz. Beraz, bada haiei ere lekua uzteko ordua.

Ismael Díaz de Mendibil



BERRI LABURRAK

Euskarri Kirol Taldeak urte garrantzitsu bati ekin dio aurtan. Kirolari guztiak (60 neska-mutil inguru) lehiaketa ezberdinetan murgilduta ditugu: futboleant, areto futboleant eta saskibaloian. Helburuak iazko berdinak dira: euskara lagun, kirola egitea. Aurtan, gainera, bazkide kanpainari eutsi nahi diote gogor arduradunek. Kirol taldea finkatzea dute helburu nagusia. Horretarako, beharrezkoa izango da guztion laguntza, beraz, aitzindaria den ametsari lagundu nahi izanez gero, GEU GASTEIZen izango duzue horren berri.

Jokalari berriak daude aurtan. Iazko batzuk kategoriaz aldatu dute eta Preferente Mailara igo dira. Horrela, Asier Iriondoren aginduetara, futbolari gazteagoak ditugu aurtan. Ikusten duzuenetz Euskarri Kirol Taldeak harrobia ere lantzen du.

GASTEIZKO BERTSO ESKOLA BERTSOTAN

Abenduak 11 osteguna

Floridako Kultur Etxean

antolatzailea

Gasteizko Bertso Eskola

15 urte bertsotan

Asier Iriondo
Asier Otamendi
Oihane Perea
Rikardo glez de Durana
Aitziber Pz de Karkamo
Zigor Enbeita

GEU gasteiz

TOLOINO

abenduaren 14ean

Irteera: Goizeko bederatzi t'erdietan, Prado kalean, Txapela tabernaren aurrean
Itzulera: 4ak aldera

Kotxez joango gara

Zerbait gehiago jakin nahi ezkeru, deitu Josebari:
17 13 65

1997ko abendua

CEGASA
INTERNATIONAL
ALCALINA

CEGASA PILAK
INDARTSUENAK
ETA
EKOLOGISTENAK



CELAYA, EMPARANZA Y GALDOS, INTERNACIONAL, S.A.
Artapadura, 11 - Apdo. 355
Teléf. (945) 12 95 10 - Fax (945) 12 95 14 - 01013 VITORIA


MUEBLES Y DECORACION MEDRANO



**GEURE ZURGINDENGIAN
GIRO EGOKIAK
LORTZEN DITUGU
EGINDAKO LANAK ETA
ERAKUSKETARAKO
ALTZARIAK ELKARTUZ**



ESTILOZKO ALTZARIAK



PINTORERIA, 45 - Tfnoa/Faxa: 25 79 32 - GASTEIZ

THE BRÖNTES: lehendabizikoa

geu gasteiz
usika



**The Bröntes taldea orain urte eta erdi osatu zenu-
ten arren, baduzue kalean
estreneko CDa.**

Bai, batek pentsa lezake denbora eskasa dela halako pausoa inportante bat ematen ausartzeko, baina guk

bagenuen alde z aurretik bide luzea. Raúl eta Iñaki "Long Jhon Silver" taldetik zetozen, elkar ezagutzen zuten. Ni talde zabal batetik nator, The Zimales-etik hain zuzen. Horrela bada, denok bagenekien zer den talde batean gotea. Gaine-

The Bröntes taldeak -bi urte bete aurretik- kalean du dagoeneko estraineiko diska: **"The First"**. Pop melodiak rock-aren erara?. Bai, izan daiteke era bat euren lana azaltzeko, edota aski izan daiteke hamar abesti bikainez osatutako diska bat dela esatea. Gasteizko Katanga estudioetan egin duten grabaketa maketa izan behar zen hasiera batean baina, kalitatea ikusirik, CD formatoan ateratzera animatu ziren The Bröntes-kideak. Ondorioz, ingeleraz abestutako pop-aren jarraitzaileak pozik, gu, musikazaleok, bete eta alai, eta Iñaki Calzada geurekin berbetan.

ra, The Bröntes-ekin hasi ginenean oso garbi ikusten genuen hirukote bat izan nahi genuela. Hirukotearen funtzionamendua errazagoa da, biziagoa, ideia gehiago sortu eta azkarrago garatzen dira. Raúl (ahotsa eta kitarra) sormen handiko pertsona da, berak ekartzen ditu jatorrizko ideiak, gure erritmo sinple, ulerterraza eta zuzenaz The Bröntes-en abesti bilakatzen direnak, hain zuzen.

Era autonomoan landu al dituzue grabaketa eta ekoizpena?

Ez. De la Casa anaiek (Katanga Estudios-ekoek) ezagutzen gintuzten, eta gainera gustukoa zuten gure musika. Maketa bat grabatzeko aukera eskaini ziguten, eta guk, jakina, baietz erantzun. Grabazioan zehar oso giro ona izan dugu. Jatorrak dira, benetan, Katanga-koak.



GASTEIZKO BATZOKIAK

ZAHAR SENDO ZINDO

ABENDANO ERDIALDE LAKUA ZARAMAGA

Eta maketaren ordezt "First" CDa kaleratu zenu- ten.

Bai, egia. Jatorrizko ideia gure abestiak kasette formatoan kaleratzea zen. Grabaketan maila ona eta adierazkortasuna lortu genuen eta horrek CDan ateratzera bultzatu eta animatu gintuzten.

"First" osatzen duten hamar abestiak baino gehiago eskeintzen al dituzue zuzenekoetan? Bert-siorik?

CDak berrogei minutu irauten dituen arren, zuzenekoak ordubeteraino luzatzen dugu. Hala ere, nahiz eta entzulegoak gure musika onartu, ezin dugu gure kontzertuak gehiegi luzatu, kanta guztiak ildo beretik doaz eta. Jendeak abestiak ezagutzen ez baditu nekagarria suertatu ahal zaio ordubete baino gehiagoko kontzertua. Gure ustez, irupen egokia da bizitasun handiko agerraldia gauzatu ahal izateko.

Zein iturri musikaletatik edaten duzue?

Alde batetik, gu hirurok, gustu ezberdinak ditugula

esan genezake, baina, badaude denon gogokoak diren gauza asko, eta hortik, hain zuzen, edaten du The Bröntes taldeak. Britania Handiko talde alternatiboak, psikodelia, betiko pop-a, horrek asetzen gaitu egarri garenean. Talderen baten izena nahi baduzu aipatuko dizkizut Dinosaur Jr, Suede, Radiohead, Foo Fighters, eta Hendrix handia, jakina.

Melodia pop rockaren erara?

Abestiak melodia ulerterraz batetik sortzen ditugu. Aho-tsa eta kitarratik jaiotzen dira. Ondoren oinarri erritmiko fresko eta indartsua gehitzen diogu Rockaren erara? Beharbada bai.

Uste al duzue The Bröntes-en lana ingelera ez den beste hizkuntz batetan gaiza zitekeela?

Ez. Guk, betidanik, ingelerrazko musika entzun dugu, eta gure lana entzundakoaren ondorioa da. Gogoko duguna

gure konposakeetara eraman dugu. Ez dugu uste The Bröntes beste hizkuntz batetan bizi zitekeenik, The Bröntes, besteak beste, ingelerraz abestutako melodiak dira. Ea beste hizkuntz batetan jo genezakeen? Bai, baina ez zen The Bröntes-ekin izango.

Imajina dezakezue The Bröntes entzulego britania- rren aurrean?

Bai, eta guretzako ilusio izugarria izango zen. Nik uste hango entzulegoak onartuko gintuzkeela. Aukera topatzea ez genuke batere erraza izango, baina, agian, harrera beroagoa bai, hori uste dut nik behintzat.



Harremanetarako telefonoa: 13 50 35

geu gasteiz

"ingelerrazko
musika entzun
dugu betidanik,
eta gure lana
entzundakoaren
ondorioa da"

geu gasteiz



BEIRATE ESTUDIOA

Txikita kalea, 1
Tfno. 14 64 10
GASTEIZ



HegoAmerikako
jantziarik ederrenak

PINTORERIA kalea • S. Franciscoren
kantoiaaren ertzean Tfnoa: 25 03 52



ARTEPAN

Artisau
Okindegia eta Goxotegia

Jesús Guridi, 2 • Tfnoak: 27 88 88 - 28 72 37
01005 GASTEIZ



LANDABURU AKADEMIA

KLASE PARTIKULARARRAK

euskaraz !!

GUATEMALA 12, BEHEA

TFNOAK: 12 09 50 eta 909 42 88 36

"presa barik jo
behar dugu
aurrerantz"

geu gasteiz

Noizbait esan dizute "Alison is Learning to Cry" kanta bikaina dela?

Bai, noizbait bai. Gure abestirik indartsuena da, jendeak nahiago duena. "Alison.."ekin bideo-klip bat egiteko asmoa daukagu. Bere egitura eta tankera garatzen saiatzen ari gara. "Alison.."ekin batera beste kanta batzuk sortu genituen, "The Sunrise" adibidez. Nire ustez diskaren lehenengo bost abestiek zintzo azaltzen dute The Bröntes garen hori. Aurrerago kanta berrien garaia helduko da, egitura eta tankera berrien garaia, eta horixe duzu, hain zuzen, guk gogoko duguna; musika ikertzea, musikan aritzea.

British Pop-ean aritzen diren taldeekin parekatu al zaituztete?

Nik uste British Pop-eko taldeekin parekatzen gaituzten lagunek gutxi dakitela musika mota edo mugimendu horretaz. Hala ere, parekatzen gaituztenak asko badira, zerbait britaniarra ikusi eta entzungo dute guregan. Gasteizkoak izan arren ingeleraz aritzea agian? Ez dakit. Egia esan, jendea, The Bröntes taldea gasteiztarrak garenez ohart-

zen denean, harrituta gelditzen da. Dena den guzti honi guk ez diogu arreta handirik ematen. Guk garrantzitsuena dugu gure abestiak lagun askoren gustokoak izatea.

Zergatik zuen talde bikain honek ez du oraindik sinatuta kontratu diskografiko on bat?

Ilusio handia dugu talde honekin, baita oinak lurrari ondo helduta ere. Badakigu non gauden eta zer nahi dugun. Ez dugu taldearen martxa bortxatu nahi. Ez ditugu geure buruak engainatu behar, burutzen ari garena bait da The Bröntesen ibilera. Presa barik jo behar dugu aurrerantz. Lehendabiziko pausoa gauzatuta dago, orain diska zabaltu beharrean gaude, jendeak ezagutu behar gaitu. Hemendik aurrea datorkigun guztia, ongi etor dadila!

Noizko "The Second"?

"The First" hau laster gauzatu nahi dugun bigarren lanaren aurrerapena da. Bigarren horretan grabazio lanetarako denbora gehiago izatea espero dugu, konponketa gehiago, abesti hobekoak, taldea ahalik eta trinkoena izatea, kalitate handiagoa edukitzea. Ez bazaigu asmoa okertzen bigarren diska bat izango dugu, baina hau maketa filosofiarik gabekoa izango da. koaren ondorioa da.

Txabi Arnel Gil

GUNS 'N ROSES

Apetite for Destruction
Geffen, 1987

Egia ote den Izzy Stradlin-en aldentzearekin batera, pikutara joan dela Guns 'n Roses bostekotearen karrera musikala? EGIA.

Egia ote den Taldekideek argitaratuko bakarkako lanak (Slash-ena eta Duff McKagan-ena) oso arruntak izan direla? EGIA.

Egia ote den Stradlin bera izan dela kalitate handiko diska ekarri digun Guns 'n Roses-kide bakarra? EGIA.

Egia ote den 1986. urteako "Live? I Like A Suicede" izeneko taldearen estraineiko lp-a (nahiz eta oso entzuna ez izan) bikaina izan zela? EGIA.

Bai horixe! Orain hamar urte, rock 'n roll eta eskandaloaren eskutik, eztanda egin zuen Guns 'n Roses izenekolehergailuak. "Apetite for Destruction" diska izan zen detonantea. Hamabi kartutxok osatu zuten lehergailu indartsu hori: hamabi abesti eta ehendabiziko polemika. Diskaren jatorrizko azala (larrua jotzen ari diren bi robot agertzen dituen) aldatu behar izan zuten, diska-dendek ez bait zuten egokitzen jo diska bitxi hau erakustea.

Azal berriarekin batera salmenta ikaragarria heldu



zen: bost miloi ale EEBBetan eta hamabost gehiago mundu osoan. Ez dago batere gaizki rock 'n roll-aren mundura ailegatu berriak ziren bost lagun hauentzat.

"Apetite for Destruction" deskribatzeko hitzik aproposena? Trinkotasuna, jakina. Dena den, egon bazeuden disko hartan taldearen ospea zabaltzen lagundu zuten bi abesti. Alde batetik "Welcome to the Jungle" kanta latza, erregarria eta ederra. Bestetik "Sweet Child of Mine" abestiak erakutsi zigun maitasunera hurbiltzeko era erritmikoa egon badagoela

Gainontzekorik? Ez. Kanta denak goraipatu beharko genituzke, guztiek lagundu baitzuten lp bikain hau borobiltzen. Hala ere, zeuon belarriek eskertuko duten lau abestiren tituluak gogoratu nahi dizkizuegu: "You're Crazy" erritmikoa, "My Michelle" eta "Paradise City" eredu klasikoetan eraikitakoak, eta "It's So Easy" garratza.

Ospatu dezagun, bada, bolumenik altuenera "Apetite for Destruction"-en hamargarren urtemuga.

Osasuna!



Bacalao Giraldo

- Eguneko makailu gesaldia • Makailua eramateko prest
- 36 errezeta ezberdin
- ERAMAN ETA JAN
- "kalitatea eta erosotasuna zure esku"

Angulema, 2 - Tfnoa: 27 23 25 • Basoa, 6 - Tfnoa: 22 16 36 • Gorbea Merkaturia - Zaldianan • GASTEIZ





lehendakari billa

POLITIKARIEN mundua oso aspergarria da. Politikari guztiak berdintsuak dira: traje grisadunak, erdi burusoilak eta loditsuak. Era ponposo eta ulergaitz batean hitz egiten dute.

Teleberri eta egunkarietan berri politikoak agertzen direnean ez diegu jaramonik egiten. Egoera kaskar hau ikusiz, Mostrongoen Asanbladak erabaki du pertsonaia erakargarriago bat izendatzea lehendakari. Hori bai, lehendakaria ezin da ohiko politikari grisa eta aspergarria izan. Hautagaiak politikaren mundutik at aukeratuko dira.

Beraz zein pertsonaia aukeratuko dute San Viator eskolako mostrongotxoek: Chiquito de la Calzada, Fary, Apeles apaiza, olentzeroa, Fernando Amezketarra, ... ?



EL FARY aukeratu-ko nuke lehendakari. Zergatik? Arazoak egoitekotan Ajuria Enean, abesten hasi eta horrela Aznar eta Gonzalez

barrezka hasiko lirateke, ezer esan gabe. Limoiak xurgatuz ere, Fary-k jendea txundituko luke bere aurpegiarekin.

AITOR, II URTE

BRAD PITT, izugarri polita denez politikari guztiak berari begiratzen geldituko lirateke, berarekin adoz jarritz. Isabel Gemiori hots egin,



HEGOALDE

euskaltegia

ZURE EGOITZA BERRIA
Jose Lejarreta 9 behea
tfnoa 28 41 96
01003 GASTEIZ

**matrikula
zaitez!**

KOADROAK
MOLDURAK
LAMINAK
MARRAZKIAK

zurbeltz
MAGDALENA, 2 • TFNO: 13 27 20

**BAR
KLAKÉ**

KUTXA, 2
TFNO.
143883



GASTEIZ

XIXILU

AMARIKA PLAZA 2
23 00 68 GASTEIZ

J
A
T
E
T
X
E
A

KLASEAK

matematika
fisika
kimika
biologia
geologia
euskara
irakaskuntza ertaina
eta unibertsitatea
☎ 26 03 54

Brad ezagutu, eta berarekin ezkonduko nintzen, seme-alabak edukiz.

CRISTINA, II URTE

BABE txerri ausarta aukeratuko nuke. Esandakoa beteko luke, leloa ez baita, hori bai, piskat erotuta dago. Hori gutxi balitz, iragarki ederrak egingo lituzke.

JOSU, II URTE

PINOTXO lehen-dakari izugarri ona izango zen. Horrela gezurak esatekotan, nabaritutako litzaioke. Era berean, asto baten belarriak edukitzera-koan, hortik esaten den guztia entzungo luke.

HUGO, II URTE

LUKAS Grijander oso hautagai ona da, dena umore onekin egiten baitu.

JULEN, II URTE

MICKEY sagua oso politikari ona izango litzateke. Alai-tasuna sortuko luke ume guztiengan. Parke ugari sortzeaz gain, Euskadin Dis-

neyland bat eraikiko luke. Jendea pozik eta alaiago bizitzen lagunduko luke. Amaitzeko berari botua emateko arrazoi ezinhobeak: eskolak debekatuko zituelako.

EDELWEISS, II URTE

STOICHKOV futbol jokalariek legeak hobetuko lituzke. Bortzakaria desagertarazten lagunduko luke. Lehendakariordea bezala botua Ronaldori emango nioke, oso argia baita.

ASIER, II URTE

ISABEL Gemio aukeratuko nuke. Emakume honek ezuste asko emango lituzke, denok gauza guztiak aurkituko genituzkelarik. Gure ametsak egia bihurtuko lituzke.

OLALLA, II URTE

BURS Bunny primerako lehendakaria ilitzateke, oso farregarria delako. Bera gobernuan egonda, goxokiak musutruk banatuko lirateke kalean. Pailazoz jantzita ibiliko litzateke.

Hitzaldiak ere hobea-goak lirateke, etengabe txisteak kontatuz.

MARIO, II URTE

TOM Cruise aukeratuko nuke, aktoreak denez, oso erraza edukiko luke...

IONE, II URTE

E.H. Sukarra taldeari emango nieke botua, asko molatzen baitute. Horrela eus-kara hizkuntza ofiziala izango zen.

CLARA, II URTE

ANDER, nire ikasgelakide bat hautatu beharko genuke, nire laguna baita eta pertsonaia famatu baten laguna izatea gustatuko litzaidake.

ANDONI, II URTE

MICHAEL Jordan lehendakari hautatuz gero, klaseko ordu batzuetan ikasi beharrean saskibaloian arituko ginatke. Ministrariak Chicago Bulls-en arrokekin jantziko lirateke.

JON T., II URTE

Lorea Zurimendi



GOIZEZ

Nekane	26 91 53	Lorena	27 10 13
Eduardo	14 21 99	Montse	26 78 12
Leire	27 32 81	Ainara	23 38 28
Lorena	27 10 13	Txaro	28 08 85
Ainara	24 04 42	Maidier	24 90 62
Ana	26 65 95	Arrate	25 64 01
Eriete	29 96 50	Patricia	13 93 37

ASTE BURUAN


ARRATSALDEZ

Oihana	25 30 35	Olatz	25 61 20
Aintzane	27 09 64	Montse	26 78 12
Iratxe	24 51 81	Arrate	25 64 01
Ainara	23 38 28	Patricia	13 93 37
Lorena	27 10 13	Leire	23 12 23
Patrizia	27 78 19	Jose Angel	27 62 14
Leire	23 12 23	Saida	26 58 05
Maidier	24 90 62	Idoia	24 47 79
		Maidier	24 90 62
		Belen	13 65 10

GAUEZ

Esther	27 84 57	Monika	13 86 21
Idoia	24 47 79	Itziar	13 86 21
		Maria Jesus	13 54 35
		Estitxu	25 99 60

J A T E T X E A



Kutxillaria, 26 tfoa: 28 81 47
•GASTEIZ

GASTEIZ

DIBUtec

Landazuri, 7 - Tel. 23 30 01

• Material escolar y de oficina

• PAPER BIRZIKLATUA

• Fotokopiak

kolorez eta Zuri-Beltzean

Arte ederretarako...
behar duzun
guztia

PAPERTEGI TEKNIKOR

INAXIO LOPEZ DE ARANA

Graham Greeneren "Giza Faktorea" liburuaren itzultzailea

"Literatur itzulpengintzatik bizitzea ez da batere erraza"



Gasteizko euskaltzaleen artean ezaguna dugu Inaxio López de Arana. Adurtzako gau eskolan eta AEKn ibili da irakasle, EHEn eta GEU elkartearen ere aritu da. GEU GASTEIZ aldizkarian ere denetarik egin du, langintza guztietan aritu da. Duela urte luze bat denbora pittin bat eman nahi izan zion bere buruari. Euskalgintza guztiz utzi gabe, itzulpengintzari ekin zion. Emaitzak ikusirik, ez da alferrikako lana izan. Hilean bertan bere estraineko itzulpen-lana aurkeztu du: Graham Greeneren "Giza Faktorea". Urtebete barru John Dos Passos-en "Manhattan Transfer" liburuaren euskarazko bertsioa aurkezteko asmoa du.

Nola aukeratu zenuen liburua?

Foru Aldundian errenta aitorpenak artxibatzeko lanean ari nintzela konturatu nintzen bestelako langintza aurkitu beharra nuela. Ikasitakoari -Euskal Filologiari, alegia- etekina atera behar niola; euskararekin lotutako lanbideren bat aurkitu behar nuela. Itzulpen-masterrean izena ematea bururatu zitzaidan. Lehenengo maila amaitu nuenean, Literatura Unibertsalaren lehiaketara aurkeztu nintzen eta irabazi egin nuen. Entzun dudana- ren arabera, hamar bat itzultzaile aurkeztu ziren "Giza Faktorea" liburu itzultzeko deialdira eta epaimahaiak, zorionez, niri eman zidan lan horren ardurara.

Zer da Literatura Unibertsala bilduma?

Punta-puntako idazleen artean ehun obra hautatu dute eta horiekin Literatura Unibertsala izeneko liburu bilduma osatu. Bilketa hori egiteko, hiru alderdiren arteko hitzarmena izan zen abiapuntua: Eusko Jaurleri-

tza, EIZIE -Euskal Itzultzaile eta Interpretarien Elkarte- eta Ibaizabal argitaletxea. Helburua zera da: literatura unibertsaleko lan inportanteak euskaraz ere irakurtzeko aukera eskaintzea. Urtero hainbat liburu- ren eskaintza egiten da. Baten batek horietako bat euskaratzeko asmorik baldin badu, zein interesatzen zaion aukeratu, lehen hamar orrialdeak euskaratu eta bere lana lehiaketara aurkez dezake. Epaimahaiak erabaki egingo du lana nori eskaini.

Zergatik hautatu zenuen "Giza Faktorea" liburu?

Lehenengo eta behin liburu mardula zelako. Zenbat eta liburu mardulago hainbat eta diru gehiago ematen dizute. Egia esan; azalpena horixe da, garaia hartan ez nenbilen oso ondo diru aldetik. Esan beharra dago, dena den, liburu polita ere badela.

Liburuaren inguruan komentariarik?

Bai. Kanpotik badirudi espioitza liburu dela, zer-

Giza Faktorea

IÑAXIO LÓPEZ DE ARANA



bait arina, beraz. Dena den, liburuaren barnean sakonduz gero beherala konturatuko zara gai mamitsuak azalarazten dituela: politika, erlijioa. Horrek sendotasuna ematen dio liburuari. Liburuan pertsonaia nagusia zelataria da, baina ez du 007 agentearekin, zerikusirik. Ez da neska eder eta lirainez inguratutik

bizi, kinka larrian eta kanpoko gora-beheren menpe bizi da.

Zaila omen da liburu bat itzultzea. Zenbateko zailtasuna aurkitu duzu langintza horretan?

Egia esan, hizkuntzaren aldetik ez du zailtasun handirik. Ingelesetik euskaratu dut eta idazleak oso

ingeleza arrunta erabili du. Itzultzaileok hitz korapiloekin, esaera zaharrek, bigarren zentzua duten hitzekin, olerkiekin... horiekin guztiekin izaten ditugu arazoak baina liburu honen kasuan ez dut oztopo handirik aurkitu.

Itzulpengintzatik bizitzarik bai?

Bai, jakina. Baina literatura itzulpengintzatik bizitzea ez da batere erraza. Oso irakurle gutxi dago eta horretan jarduteak ikaragarriko denbora piloa kentzen dizu. Irakurle gutxi egonik, salmenta gutxi egongo da, halabeharrez. Itzultzaile askok eta askok ez dute ezer kobratzen eta sarritan bigarren lanbide baten bila aritu behar izaten dute bizimodua aurrera ateratzeko.

Bai, baina proiekturik ez zaikizu faltako

Ez, ekainean lehiaketara joan ginen anaia eta biok bilduma bereko beste liburu bat itzultzeko eta geuri eskaini digute lana berriro ere. Lana erdibana egingo dugu anaia eta bion artean. John Dos Passos idazlearen "Manhattan Transfer" liburu aukeratu dugu eta esan beharra dago oso liburu mardula dela, oraingoa baino mardulagoa.

Asko ikasten al da itzulpenak egiten?

Jakina. Bi hizkuntza lantzen duzu batera: kasu honetan ingeleza eta euskara. Beste herrietako bizipenak ere barru-barrutik ikusteko aukera ematen dizu; baita idazleek erabiltzen dituzten baliabide teknikoak aztertzeke ere. Denetarik ikasten da. Liburuaren irakurketa oso sakona da. Jatorrizko testua goitik behera ulertu duzula ziurtatu behar duzu itzultzen hasi aurretik. Hori, nahi eta nahi ez, esperientzia aberasgarria da. Asko ikasten da, bai.

Behar beste eskertzen al da itzultzaileen lana?

Literaturaren alorrean agian bai; administrazioan, ordea, ezta hurrik ere. Literatura itzulpengintza askoz ezkeronekoagoa da. Liburu bat itzultzen dugunean irakurleak irakurri egiten du gure lana. Administrazioan lan egiten dugunean egiten ditugun itzulpenak,

lantzen ditugun testuak gehien-gehienetan agiritegi batean artxibaturik egongo dira, inork irakurri gabe.

Zaila al da liburu hauei guztiei enskal kutsua ematea? Antza denez, ez dago oraindik tradizio handirik literatura uni-bertsaleko liburu hauek enskaratzeko orduan.

Zabalkundean dago koska. Liburuaren aurkezpena egiten dugunean horren berri zabaltzen dugu irratian eta egunkarietan. Horrelaxe izan da nire kasuan ere eta horrelaxe izan behar luke kasu guztietan. Euskal kultura sustatu nahi badugu eta euskarazko itzulpengintza ere bultzatu nahi badugu, behar-beharrezkoa da lan hauei guztiei ahalik eta zabalkunde handien ematea. Bestela, gure etxetuloan geratuko gara atera nahi eta ezinik. Horrela egin ezean, jai dugu!

Itzulpengintzaren bidetik hurbildu zara literaturgintzara. Baina... noizko zuk idatzitako liburu bat?

Lasai! Handik eta hementik ideiak hartzen nabil. Baliteke noizbait liburu bat idaztera animatzea. Oraingoz aski da itzulpengintzarekin. Ez da lan erreza baina bai sorkuntza-lana baino errezagoa.

Raúl Sáez de Buruaga

IZENA:

Iñaxio López de Arana

ADINA:

32

LANA:

Itzultzailea. Zubia-Santillana argitaletxeko langilea

LIBURU BAT:

"Obabakoak"

MUSIKA:

Benito Lertxundi

ZALETASUNA:

Mendia

PERTSONA BATENGAN

GUSTUKO DUZUN HIRU

EZAUGARRI:

Zintzotasuna, naturaltasuna eta umore ona

PERTSONA BATENGAN

GUSTUKO EZ DUZUN HIRU

EZAUGARRI: Itxurakeria, gezurrak esateko zaletasuna eta harrokeria

AMETS BAT:

Euskal Herri independentea eta euskalduna

AMILAMIA

arropa eta osagarriak



PINTORERIA, 17
tfnoa: 27 40 09
GASTEIZ



Pintoreria, 23 • Tel. 28 18 38 01008 GASTEIZ

MERI KRISMAS



gidoia eta marrazkiak: Iñigo Sarasola

GASTEIZKO UDALA



Ondokoetan badago euskaraz dakien langilerik

SAILA	ZERBITZUA	HELBIDEA	TELEF.
UDALETXEA	PRENTSA KABINETEA ZERBITZU OROKORRAK GIZARTEGINTZA (ARGIBIDEAK) GAZTEEN ARGIBIDE BULEGOA FUNTZIO PUBLIKOA IDAZKARITZA ARGIBIDEAK ETA ERREGISTROA ERROLDA	Espainia plaza, z/g Espainia plaza, z/g Espainia plaza, z/g Espainia plaza, z/g Espainia plaza, z/g Espainia plaza, z/g Espainia plaza, z/g Espainia plaza, z/g	16 13 37 16 13 08 16 13 44 16 13 30 16 11 41 16 13 20 16 11 88 16 11 06
BULEGO TEKNIKOAK	BORONDATEZKO DIRU-BILKETA ZERGEN GESTIOA INGURUGIROA	Dato, 11 Dato, 11 Dato, 11	16 16 68 16 11 33 16 11 20
OSASUN ETA KONTSUMO SAILA (DEMSAC)	KONTSUMITZAILEEN INFORMA- ZIOZ-ORAKO UDAL BULEGOA (KIUB)		16 12 40
UDAL ARTXIBOA	ARTXIBOA-ARGIBIDEAK		16 14 99
ETXEBIZITZA ETA HIRI BERRIKUNTZARAKO UDAL ERAGINTEGIA	ARGIBIDEAK		16 12 88
VILLA SUSO JAUREGIA	ARGIBIDEAK		16 12 70
HEZKUNTZA SAILA (IME)	ARGIBIDEAK	Fray Zacarias	16 12 16
EKONOMI SUSTAPENA		Fray Zacarias	16 12 11 16 13 48
GIZARTE ETXEA	JUDIMENDI LANDATXO IPARRALDE ARIZNABARRA	Urriak 12 kalea, z/g Santa Maria kalea, 4 Zuberoa plaza, z/g ARIZNABARRA, 19	16 17 40 16 16 82 16 17 60 13 36 91
EUROPA GIZARTE-ETXEA	ARGIBIDEAK (KULTURA) BILTZAR ETA TURISMO BULEGOA		16 12 31 16 12 61
KONTZIENTZI ERAGOZ- PENERAKO BULEGOA			16 36 91



Z E
E L
R E
B B
I D
T V
Z N
V A
K

gure kultura zaintzen



HITZA KULTUR ETXEAN

Abendua

Bitoriano Gandiaga

Ahotsik behartu gabe

Liburuaren aurkezpena eta poesia irakurketa
Abenduak 1, astelehena. Arratsaldeko 8etan

Iñurrategi anaiak

Broad Peak 97

Diaporama

Abenduak 2, asteartea. Arratsaldeko 8etan

Jesús Mari Irazu eta Aitor Mendiluze

Hitzarekin jolasean

Abenduak 5, ostirala. Arratsaldeko 4etan

Gasteizko Bertso Eskola

Gasteiz 15 urte bertsotan

Bertso saioa

Abenduak 11, osteguna. Arratsaldeko 8etan

Koldo Amestoy

Ibarxola

Helduentzako ipuin kontaketa

Abenduak 18, osteguna. Arratsaldeko 8etan

La Florida ibilbidea z/g

Tel. 945-181944

Mari Errauskin Opera

Juan Arzamendi

Teatro Principal Antzokia
1997ko abenduaren 12an
Arratsaldeko 8etan



Pantxoa ta Peio

Oles ta oles

Teatro Principal Antzokia
1997ko abenduaren 23an
Arratsaldeko 8etan

**Diputación
Foral de Alava**

Departamento de Cultura y Euskera



**Arabako
Foru Aldundia**

Kultura eta Euskara Saila